



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

CPES POLITEKNIKA IKASTEGIA TXORIERRI S.COOP. BHIP

Ikastetxearen kodea:

015831

Data:

2023(e)ko ekainaren 16(a)





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

1. IKASTETXEAREN DESKRIBAPENA.

1.1. HISTORIA.

POLITEKNIKA IKASTEGIA TXORIERRI S.COOP. Ltda.-k 1979/80 ikasturtean hasi zuen bere jardura akademikoa, titulartasuna Bilboko Elizbarrutitik eskualdatzeko prozesua bukatu zenean. Eskualdatze-prozesu hori haraneko parrokoek eta MATRICI S.Coop.-ek konpartitzen zituzten kezkei erantzuteko sortu zen, alegia: alde batetik, parrokoek irteera bat bilatu nahi zuten Batxilergoko ikasketetara ezin iritsi zitezkeen gazteentzat; bestetik, MATRICI S.Coop.-ek erantzuna eman nahi zion hareneko lanbide-heziketari, LHko bigarren ziklo bat abiatuz, zeren ordura arte lehenengo zikloa soilik eskaintzen baitzen. Geroago, beste enpresa batzuk gehitu ziren, hala nola: Electrotecnia Artetxe S.A., Ondean S. Coop., Fagor Arrasate, Proinyec, Batz Zamudio S.Coop., Ekide S.Coop. eta Laboral Kutxaren Gaztenpresa Fundazioa. Halaber, udalek laguntza eman zuten ikastetxe berria eraikitzeko (1992), eta hori bideratzeko modua izan zen Txorierriko Udalen Mankomunitatea (Larrabetzu, Lezama, Zamudio, Derio, Sondika eta Loiu) bazkide gisa integratzea. Horrenbestez, ikastetxearen oraingo formula juridikoa Sozietate Kooperatibo Integralarena da, eta une honetan partaide hauek ditu: familiak, enpresak, langileak eta udalak.

Kooperatibaren Sozietate-helburua, bere Estatutuetan islatzen den bezala, honela geratzen da ezarrita: bere Eskualdeko ezaugarri soziokulturalei eta gizonen eta emakumeen prestakuntza integralari erantzuten dien hezkuntza-proiektu bat garatzea, gizartearen zerbitzuan; bere lehentasunezko jarduna da irakaskuntza tekniko-profesionala maila guztietan sustatzea, kontuan hartuta bai ikasleen interesgune eta gaitasun pertsonalak eta bai ikastetxea kokatuta dagoen eskualdeko behar soziolaboralak. Hori guztia dirua irabazteko asmorik gabe.

Ikastetxearen jarduna Elizbarrutiaren Derioko Apaiztegiaren Eraikinaren Mendebaldeko hegaleko lau solairutan hasi zen. Lokal haiek Bilboko Elizbarrutiak laga zituen, modu prekarioan, zeren hor egoteko baldintza zen bertan geratu ahal izango ginela Elizbarrutiak erabili behar ez zituen bitartean. Gure erakundeak planteatu zion Elizbarrutiari lagatako lokaletan hamar urtez egon behar genuela, zeren pentsatzen baikenuen horren ostean irakaskuntza-zentro berri bat eraiki ahal izango genuela. Hori errealitate bilakatu zen 1992an, Politeknika Txorierrri S. Coop. Ltda.-aren ekimenez eta erakunde hauen ekarpen garrantzitsuari esker: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Lan eta Gizarte Segurantza Saila, Bizkaiko Foru Aldundia, Txorierrriko Udalen Mankomunitatea, Lankide Aurrezki Kutxa eta Mondragon Kooperatiba Taldeko enpresak.

Bere hezkuntza-jardueraren hasieratik, ikastetxeak eboluzio nabaria izan du, bai bolumen aldetik eta bai eskaintzen dituen zerbitzuen aldetik.

Urteek aurrera egin ahala beste profesional batzuk gehitu badira ere, profesionalen talde egonkor bat mantendu da, eta hori lagungarria izan da hasierako proiektuaren helburu pedagogikoei eusteko.

Zehazki, hasieran 90 ikasle eta 6 lanpostu izan genituen; gaur egun, berriz, 850 ikasle (hasierako, lanerako eta etengabeko prestakuntza) eta 50 lanpostu izatera iritsi gara.

Beste alde batetik, ikastetxeak eskaini duen prestakuntza motari dagokionez, ikusten da eboluzio handia egon dela eta interes handia izan dugula gure inguruneko gazte eta langileen intereserako egokia den eskaintza mantentzeko balio duten gune guztietan egoteko, betiere Kooperatibaren sozietate-helburua kontuan hartuta.

Hala, hasieran lehen graduko Lanbide-heziketa eskaini genuen Metal/Delineazio eta Elektrizitatearen adarretan, eta geroago etengabeko eboluzioa izan dugu, alderdi hauetan zehaztuta:

- Lehen aipatutako espezialitateen eskaintzari LHko bigarren zikloa gehitzea.

- Espezialitateak berregituratzea, lan-merkatuaren etengabeko aldaketaren arabera.
- 1985az geroztik Irakaskuntza Ertainen eta irakaskuntza Tekniko-profesionalaren erreformetan parte hartzea.
- 1986az geroztik hainbat erakunderekin kolaboratzea enpresako profesionalei edo eskualdeko langabeei zuzendutako prestakuntza-planen garapenean.
- 1991az geroztik zenbait Modulu Profesional ezartzea, Hezkuntza Sistemaren Erreforma Esperimentalaren proposamenetan oinarrituta.
- 1997az geroztik Batxilergo Teknologikoa ezartzea, eta baita Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak ere, familia hauetakoak: Fabrikazio Mekanikoa, Elektrizitatea/Elektronika, Kimika, eta Merkataritza eta Marketina.
- 1999. urteaz geroztik Hobetuz-Langileen Prestakuntzarako Euskal fundazioaren homologazioa izan dugu jardunean dauden langileei zuzendutako prestakuntza-planak emateko.
- 1999. urteaz geroztik eskaintza hirueleduna (euskara, ingelesa eta gaztelania) ezarri dugu Goi Mailako Heziketa-zikloetan.
- 2006. urteaz geroztik Eskaintza Partzial bat ezarri dugu Merkataritza eta Marketin zikloan.
- 2008az geroztik Zientzia eta Teknologiaren batxilergo berria ezarri dugu.
- Goi Mailako Heziketa-zikloetara Sartzeko Proba prestatzeko ikastaroa abiatu dugu, 2008az geroztik.
- 2010-2011 ikasturteaz geroztik HLOra (LOE) egokitu ditugu ziklo hauek: Fabrikazio Mekanikoa, Produkzioaren Programazioa eta Mekanizazioa.
- 2011-2012 ikasturteaz geroztik HLOra egokitu ditugu ziklo hauek: Telekomunikazio eta Informatika Sistemak, eta Automatizazioa eta Robotika Industrialak.
- 2012/2013 ikasturteaz geroztik HLOaren ziklo berri hauek ezarri ditugu: Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola, eta Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketa.
- Azpimarratzekoa da hasieratik beretik Kabinete Psikopedagogikoa eratu genuela, gaur egun Orientazio Saila dena. Bertatik, hainbat zerbitzu eta laguntza- eta aholkularitza-baliabide eskaintzen zaizkie gure ikasleei, familiei eta irakasleei, bai orientazio akademikoa eta bai profesionala errazteko.
- Orobat, Jarduera Osagarrien eta Eskolaz Kanpoko Ekintzen Programaren bitartez, gure ikasleen garapen eta prestakuntzaren alde egiten dugu (toxikomanien prebentzioa, bide-hezkuntza, heziketa afektibo-sexuala, ingurumen-sentsibilizazioa, parte-hartze eta boluntarioritza, berdintasuna...), eta, beste alde batetik, gure ikasleek euren prestakuntza osatu dezakete hizkuntza eta informatikarekin lotutako alderdietan.

Familiek ikastetxearen norabidearen ardura hartu zuten geroztik, haien helmugetako bat izan da ikasleak enprekin lotzea, hau da, azken batean, integrazio-bideak erraztea. Horren ondorioz, Sozietate Kooperatiboaren 1980ko urtarrilaren 27ko Batzarrean honako helburu hau zehaztu zen: "enpresa kooperatibo bat sortzea Ikastetxeko ikasleek lan egin ahal izan dezaten". Aldi berean, ikasleen kooperatibak forma juridikoa hartu zuen, "Coopaltxo" izenarekin. Ikasleek beren kooperatibaren estatutuak prestatu zituzten; horren ostean, 1984ko ekainaren zortzian, Batzar eratzailea egin zen Elizbarrutiaren Apaiztegiko lokaletan. Poliki-poliki, lanak egin ziren enpresa eta erakunde hauek: Matrici, Ondoan, Eguren Kone, Lauro Ikastola, Manufacturas Eléctricas Mungia, Ralpe, Gasteizko Ogeta Frontoia, Leioako Unibertsitatea -beraren liburutegiko pendulua- eta hainbat eta hainbat enpresa. Nolanahi ere, apur bat gehiago aurrera egiteko unea iritsi zen. 2000. urtean, Coopaltxo desegin zen eta haren lekua Langirok hartu zuen, hots, eskolak legez babestutako bigarren jarduera bat, instalazio eta ekipamendu propioekin, bere negozio-arloak zirkuitu inprimatu fabrikaziora eta planoen ordenagailu bidezko diseinura zuzendu zituena. Geroago, lan horiek eskualdeko zenbait enpresak eskatutako I+G proiektuetara orientatu dira, eta haien kalitatea ikastetxeko irakasle laguntzaileek kontrolatu dute.

Koordinazio Pedagogikoaren jarraibidearen arabera arituz, gure ikastetxea -Orientazio Kabinetaren

bidez- Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako Parekatuz sarean kolaboratu izan du 2007. urteaz geroztik. Era horretan, genero-berdintasunaren alde martxan jarrita dugun proiektua orientazio egokia eskaintzen die neskei genero-estereotipoak ezabatzeko, Heziketa-ziklo bat edo Unibertsitate-karrera bat aukeratzekoan.

2003. urteaz geroztik, ikastetxearen jarduna areagotu egin da Kultura Ekintzailearen Sustapenaren arloan: Heziketa-zikloetako ikasleak Sentsibilizatzeko Ikastaroak; ekintzaileentzako ibilbide bat sortu dugu, enpresaren bideragarritasun-proiektua egiteko aholkularitzarekin (bideragarritasun teknikoak, ekonomiko-finantzarioa eta logistikoa); eta, bazkide eragile gisa, 2006. urteaz geroztik WORK-LAN Bizkaia Elkartearen parte hartzen ari gara, zeren bere sozietate-helburuaren oinarria gizarte-ekonomiako enpresak sustatzea baita. Halaber, 2009. urteaz geroztik LHko zentroen URRATS-BAT sarean parte hartzen dugu.

Informazio eta komunikazioaren teknologien erabileraren alde ikastetxeak 1998az geroztik egindako apustuak azpiegitura telematiko aurreratuenetako bat eman dio; hala, Interneten bidezko matrikulazioa eskaini duen lehenengo LHko zentroa izan gara, bai zikloetako ikasleena eta bai birziklapen-ikastaroak egiteko inskribatzen diren langileena ere. Ikastetxeak teknologia berriekin hartu duen konpromisoaren adibide bat EducaNet Soc. Coop. izan zen, hau da, Txorierrik sustatutako enpresa bat, sareko hezkuntza-zerbitzuetan espezializatua, IKTen erabileraren abangoardian egoteko aukera eskaini ziguna. Telekomunikazioen erabileran dugun lidergo horri esker, ikastetxeko kudeaketa modu deszentralizatuagoan egin daiteke, eta, beraz, sailek autonomia handiagoa dute euren ildo estrategikoen definizio eta ezarpenean; errazten du, halaber, gure pertsonen interes-taldeekin duten harremana (familiak, ikasleak, enpresak,...). Orobat, garrantzitsua da aipatzea IKTek (moodle, blogak, wikiak...) eskaintzen duten sostengua irakaskuntza-metodologia berritzaileen aplikazioan, hala nola PBL (arazoak konpontzean oinarritutako ikaskuntza).

Mugarik gabeko gizarte batean bizi garenez, 1999az geroztik Txorierrik lankidetzaren proiektuak bultzatu izan ditu atzerriko beste zentro eta instituzio batzuekin. Irakaskuntza-taldea kolaboratzen egon da garapen bidean dauden herrialdeetan (Kolonbia) lan egiten duten irakasleen prestakuntzan; halaber, Europako Leonardo Da Vinci (gaur egun Erasmus+ deitzen da) programak finantzatutako proiektu pilotuen diseinu eta garapenean ere kolaboratu du. Era horretan, gure irakasleek interes pedagogiko eta kulturala duten proiektutan parte hartzen dute (adibidez: ikasle immigranteen harrera hobetzea); eta ikasleek euren praktikak europar enpresetan egiteko aukera izaten dute (Irlanda, Italia, Herbehereak, Erresuma Batua,...), hori guztia gure nazioarteko harremanen sailak kudeatzen dituen hitzarmenei esker.

Ikastetxearen sorreratik egindako lan guztia islatuta geratu zen 2003an, zeren Eusko Jaurlaritzak zilarrezko Q ziurtagiria eman baitzigun kalitatearen kudeaketagatik, eta 2005ean bikaintasuna saritzen duen urrezko Q; bi kasu horietan, aitortza horiek lortu zituen Bizkaiko lanbide-heziketako lehenengo ikastetxea izan ginen. Horrez gain, 2019an gure Hasierako Prestakuntza eta Enplegurako Prestakuntza Sistema ziurtatu genuen, AENOREn bidez, UNE-EN ISO 9001:2015 Arauaren arabera.

Ingurumenarekiko konpromisoa ere Txorierrik bere ingurunearekin hartutako gizarte-konpromisoaren adierazle bat da. Alde horretatik, 2004. urtean AENOREk gure Ingurumena Kudeatzeko Sistema ziurtatu zuen, ISO 14001:2004 Arauaren arabera. Kasu honetan ere, aitortza hori Bizkaian lortu zuen lehenengo ikastetxea izan ginen.

Eboluzio historiko horretan, beste urrats estrategiko bat izan zen Ikastolen Federazioan integratu ginela, eta berau, berriz, bazkide laguntzaile gisa integratu zela POLITEKNIKA TXORIERRI S. Coop.-en, 2009ko urtarrilean; 2013an, berriz, lankidetzaren hitzarmenak sinatu genituen Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkearekin eta Euskadiko Automozio Klusterrarekin (ACICAE).

2019an, gure etxeetan konfinatu gintuen munduko pandemiara egokitzeko, gure jarduerekin jarraitu ahal izan genuen, eta zenbat aitortza ere jasotzea lortu genuen, hala nola: finalistak izatea hezkuntza-bikaintasunerako ASPROMEK sarian; espezializazio-programen aitortza BANKIA fundazioaren aldetik; finalistak izatea QUALITY INNOVATION AWARDS sarietan, gure ikaskuntza/zerbitzu proiektuengatik, eta Libera Makers sarietan finalistak izatea, fabrikazio mekanikoko ikasleen proiektu batengatik. Saria "LH: Erronkak trantsizioan dagoen mundu baterako" izenburupean Toledon egin zen LHaren 7. Batzarrean lortu zen.

2020. urteaz geroztik, Eusko Jaurlaritzako Sailak ezarritako betekizun guztiak betetzeagatik, Lanbide-heziketako Ikastetxe Integratu izendatu gintuzten; gainera, kudeaketaren alorrean, emakumeen eta gizonen arteko lehenengo berdintasun-plana onartu genuen.

1.2. EGINKIZUNA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK.

2021-2025 aldirako Plan Estrategikoan honako eginkizun, ikuspegi eta balio hauek definitu ditugu:

EGINKIZUNA:

Gure eginkizuna da kalitatezko prestakuntza espezializatua eskaintzea, pertsona trebatuak eta ingurune aldakorrera egokitzeko gaitasuna dutenak garatzeko, aniztasunari arreta eskainiz, metodologia berritzaileen eta elkarlaneko ikaskuntzaren bitartez.

IKUSPEGIA:

Erreferentziazko ikastetxe bat gara Bizkaian eta Txorierri eskualdean, eta gure enpresa-aliantzak eta proiektu berritzaileek laneratzea eta ekintzaitza errazten dituzte, garapen pertsonal eta profesionala bultzatzen duten metodologia berrien bitartez.

BALIOAK:

Berritzaileok: Mundu global honetan teknologiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloetako aldaketetara egokitzeko gaitasuna dugulako.

Geldiezinak: Ikastetxeari balioa ematen dioten proiektuetan parte-hartzen gozatzen dugulako.

Gertukoak: Tratu hurbila dugulako ikasleekin, familiarekin eta erakundeekin. Haien garapen pertsonalaz eta laneko arduratzen garelako, orientazio akademiko-profesionalaren eta tutoretzaren bitartez.

Kooperatiboak: Sektore guztien parte-hartze demokratikoa eta gardentasuna eremu guztietan sustatzen ditugulako.

Konprometituak: Zerbitzu publiko integratu arduratsua eta gure ingurune garapenarekin konprometitu eskaintzen dugulako (soziala, ekonomikoa, kulturala, linguistikoa, ingurumenekoa...)

1.3. TESTINGURU SOZIOEKONOMIKOA.

Historikoki kontsideratu da Txorierri harana Loiu eta Larrabetzu udalerrien artean dagoen tarte delatua, eta 20.769 biztanle ditu (2008ko erroldaren arabera), Loiu, Sondika, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzu udalerrietan banatuta.

Oso ingurune euskalduna da, eta euskaldunen proportzioa nabarmen hazi da (1981ean % 52,9 izatetik 2017an % 71,93 izatera pasatu da). 80ko hamarkadako birmoldaketa industrialak krisi ekonomiko larria ekarri zuen, eta oso langabezia-tasa handia utzi zuen; horren ostean, haatik, eskualdeko ekonomia suspertu egin zen, eta horri esker esan dezakegu 2015. urtearen amaieran bertoko langabezia-tasa probintziakoa eta EAEkoa baino txikiagoa zela (gure eskualdekoa % 13,1 zen, Bizkaikoa % 17,4 eta EAEkoa % 16,1).

Gure inguruneak aireporturako irteera ematen du eta Bilboko erdigunetik gertu dago, eta, hortaz, industria hedatzeko gune egokitzat hartzen da; horregatik, azken urteetan Industrialdeak jarri dira Derio, Sondika, Zamudio, eta Larrabetzun, eta, halaber, DENAK Enpresen Zentroa, Zamudioko Teknologia Parkea, Larrabetzuko Elkartegia, Sasines industrialdea eta Sondikako BEAZ.

Jarduera-sektorearen arabera, eskualdeko enpresen jarduera nagusiak trokelgintza eta elektrizitatea/elektronika dira, eta baita teknologia berrien arloko garapenak ere.

Haranean dauden hezkuntza-aukerei dagokienez, Bilbo Handia nahiko gertu dagoenez, eskualde honetan ikastetxe pribatu ugari ezarri ziren, batez ere DBH eta Batxilergoa emateko; horregatik, ikastetxe publikoekin batera, LHaren eskaintza oso mugatua izan da, beste irakaskuntza horiekin alderatuta; hori kontsideratu beharreko datu bitxi bat da, eskualdeko ekoizpen-sektore nagusiak zein diren kontuan hartuta.

Goi Mailako Heziketa-zikloen kasuan, hezkuntza-eskaintza hori gehienbat POLITEKNIKA TXORIERRIK garatu izan du orain arte.

1.4. IKASLEEN KOLEKTIBOA.

Ikasleen jatorriari dagokionez, ikus dezakegu Txorierri eskualdeko ikasleen presentzia % 25aren ingurukoa izan dela azken urteotan, eta Bilboko ikasleen ehunekoa ere % 25 da, gutxi gorabehera. Gainerako ikasleak, berriz, eremu haietakoak dira: % 14, Uribe-Kostakoa; % 12, Mungiakoa eta % 11,

Ibaizabalgoa. Azken urteetan, gainera, ikasleen % 6 Bermeotik etorri da eta % 4 Leioatik.

Alor psikopedagogikoan, oso ikasle heterogeneoa dugu, eta gure hezkuntza-eskaintzaren eraginez mutilen ehuneko (% 83,21) neskena (% 16,78) baino askoz ere handiagoa da. Gaur egun alderdi hori aldatzen saiatzen ari gara gure Berdintasuna Proiektuaren bidez.

Batxilergoan bi ikasle mota ditugu: alde batetik, profil psikopedagogiko aurreratua dutenak, Unibertsitatera joan nahi dutenak eta gure Zientzia eta Teknologiaren Batxilergoan eta gure Goi Mailako Heziketa-zikloetan helmuga horretara iristeko prestakuntza bilatzen dutenak; bestetik, DBHko titulazioa kalifikazio apalekin lortu dutenak eta lan-ohitura gutxi garatuta dutenak, eta, hortaz, hezkuntza-errefortzua behar dutenak Batxilergoaren programetan aurrera egiteko.

Gisa berean, goi mailako **Heziketa-zikloetan heterogeneotasuna** errepikatzen da; izan ere, ziklo horietan Batxilergoa bukatu berri duten ikasleak ditugu, eta eurekin batera badira beste kolektibo batzuk, ikasgela konpartitzen: alde batetik, Unibertsitateko datarren kolektibo bat dugu, errealitate profesionalera hurbildu nahi duena, bere laneratzeko maila hobetzeko itxaropenarekin; eta, bestetik, erdi mailako ziklotik datarren kolektibo bat, bere laneratzeko itxaropenak edo aukerak hobetu nahi dituenak goi mailako ziklo bat eginez.

Gainera, erdi mailako **Heziketa-zikloetan** DBHko titulua kalifikazio apalekin eta lan-ohitura gutxi garatuekin lortu duten eta -hortaz- garapen profesionala ziklo horren bidez bilatzen duten ikasleak aurkitzen ditugu.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Azpaldi hasi ginen Politeknika Txorierrin Komunikazio Teknologien hedapenean aurrerapauso nabarmenak ematen.

Teknologiak, Ikastolaren komunikazioan, kudeaketan eta ikas-prozesuan bertan eragiteko moduko azpiegitura antolatzea garrantzitsua izan da. Teknologiak hedapen indartsua izan du, softwareari zein hardwareari dagokionez.

Egun, IKT taldea antolatu dago eskolan, non IKT dinamizatzailea, IKT infraestruturaren arduraduna eta IKT mantenuko teknikarak osatzen duten. Dinamizatzaileak eta infraestruturaren arduradunek, bere egin beharrak klaseekin tartekatzen dituzte eta mantenuko teknikariak dedikazio osoa dauka bere lanerako.

Mantenuko protokoloa ezarrita dago. Arazoa aurkitzen duenak, Langileen atarian dauden baliabideen bitartez, intzidentzia irekitzen du eta ikt taldearen esku geratzen da arazoaren azterketa eta konponketa.

GAILUAK:

- Ikasleei Windows sistema eragilea daukaten ordenagailuak errazten zaizkie eskolan eta nahi duenak bere equipo propioa ere ekarri dezake
- Irakasle guztiek Windows sistema eragilea daukaten portatilak erabiltzen dituzte
- Administrazio eta zerbitzuetako langileek Windows sistema eragilea daukaten ordenagailuak erabiltzen dituzte

AZPIEGITURAK:

Zerbitzariak, sarea, internetera zuntz bidezko konexioa, geletan konexio puntuak eta wifi antenak dituzte.

Ikastolako espazio guztiak daude internetera konektaturik, ikastolako metodologiak eskatzen

dituen beharrei erantzuteko, bai lan pertsonala, bai taldekoa bermatu ahal izateko.

Ikastolak 2 domeinu kudeatzen ditu:

- Ikasleekin elkar lana bideratzeko **txorierri.com**
- Profesionalen lan eremua, **txorierri.net**

Hurrengo urtetik aurrera eta marka aldaketa bat euki dugunez hirugarren domeinu bat ere izango dugu, **politeknikatxorierri.eus**, eskolaren marka berriarekin bat egiteko ideiarekin

HORNIKUNTZA:

● GAILUAK:

- o Ikasleak:
 - Windows
- o Irakasleak:
 - Windows
- o Langileak:
 - Windows

● GELAKO GAILUAK:

- o PC-ak
- o Inprimagailuak
- o Proiektoreak
- o Arbel digitalak

● KONEKTIBITATEA:

- o Zerbitzariak
- o Wifi-a
- o Firewall-a
- o Sarea

● ZERBITZU DIGITALAK:

- o Gestio aplikazioak:
 - Alexia
- o Ikaskuntza inguruneak
 - Saioka

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Ikastetxeko Proiektu Digitalak eskolaren egungo zein etorkizuneko egoeran, ezinbesteko garrantzia dauka eta ondorengo puntu nagusietan laburtu dezakegu proiektu honen justifikazioa:

- **Teknologia gizartean duen eragina:** Gaur egun, teknologia digitalak gizartean eragina handia dauka. Proiektu digitalaren bidez, ikasleei gaitasunak emango zaizkie teknologia digitalen erabilera eta garatzea, beren hezkuntza eta profesionalizazioa hobetzeko.
- **IKT-en eskuratzea:** Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) garrantzitsua dira lan munduan eta enplegarritasun handia dute. Proiektu digitala bidez, ikasleek IKTak ezagutu, erabili eta garatu ahal izango dituzte, horrek bultzada emango die haien lanbideko garapenean eta lanmerkatuan egonaldi arrakastatsuenak izateko.
- **Komunikazioa eta lankidetzaren bultzatzea:** Proiektu digitalak komunikazio eta lankidetzaren ahalbidetzen ditu, sare sozialak, elkarrizketarako plataforma digitalak eta beste baliabideak erabiliz. Horrela, ikasleek harremanak sortu eta mantendu ahal izango dituzte eta lankidetzaren parte hartu ahal izango dute.
- **Iraunkortasuna eta papeleraren murrizketa:** Papeleraren kontsumoa murriztea eta ingurumen-

ohitura sustatzea garrantzitsua da. Proiektu digitala bidez, ikasleek materialak eta dokumentazioa digitalizatu ahal izango dituzte, hau da, papel gutxitzea eta ingurumen-ohiturak bultzatzea.

- **IKTen inguruan trebatzea:** Ikasleek IKTak lantzea eta erabiltzea garrantzitsua da, haien etorkizunean profesionalak izateko. Proiektu digitalaren bidez, ikasleek gaitasunak eta trebetasunak garatu ahal izango dituzte IKTaren alorrean, gero eta garrantzi handiagoa duten sektoreetan lan egiteko.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

ANALISIA

Ikastolaren selfie galdetegia beteko dute irakasle, zuzendari eta ikasleek. Galdetegi honen bitartez, DigCompek planteatzen dituen puntuetan geure burua non kokatzen dugun eta hiru kolektiboen arteko irakurketa desberdinak eta beste hainbat konparaketa erakusten dituen txostena jasoko dugu.

Selfiearekin jasotako datuen irakurketa egin eta ondorioak ateratzeko, etapaka banatuta, hainbat bilera egingo ditugu. Bilera hauetan, indarguneak eta ahuleziak identifikatuko ditugu eta hauen inguruko hausnarketa bat egingo dugu puntu bakoitzean. Etapa guztietan jasotako ondorio hauekin, Ikastolako AMIA osatuko dugu eta ondoren, honako lanketa egingo dugu bertan jasotakoa uztartzuz:

- Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko
- Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko
- Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko
- Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

Lanketa hau egiteko, IKT eta zuzendaritzako kide batzuek osatutako talde bat sortuko dugu.

DISEINUA

Ikastolako beste behar batzuk kontuan hartuta, lehenengo pausua 23/24 eta 24/25 ikasturteetarako bizpahiru helburu finkatzea izango da. Helburu hauek, aurrez aipatutako lan taldearekin zirriborratuko dira mentorearen laguntzaz eta Zuzendaritza Orokorreko taldearekin ere egingo da kontrastea ekintza plana diseinatzen hasi aurretik.

Markatzen diren helburuen arabera, talde berberak diseinatuko ditu ekintza plan guztiak edo helburuarendako egokiena den lan taldea osatuko dugu. Sortutako lan talde hauek ekintza plana adosten dutenean ere, Zuzendaritza Orokorreko taldearekin kontrastatuko da datozen ikasturteetako Urteko Kudeaketa Planean txertatzearekin batera.

INPLEMENTAZIOA

Urteko Kudeaketa Plana osatzerakoan, gauzatze mailaren adierazleak eta ekintza planak dituen beharren eta antolaketaren identifikazioa eta diseinua egin behar dira. Lan bakoitzaren arduraduna nor izango den eta bertara bideratu beharreko baliabideak ere une honetan adostu beharko dira. Era berean, inplementazio konkretu batzuk akonpainamendua behar badute ere, zehaztu behar da.

EBALUAZIOA

Amaitzeko, azken fasea ikasturtean zehar eta bereziki 2025ean egingo da. UKParen jarraipena ikasturteko bi momentutan egiten dugu, otsailean eta ekainean eta honen neurketarako, aurrez zehaztutako adierazleak erabiliko ditugu. Horretaz gain, 2025ean IPDaren helburuen betetzearen eta prozesuaren ebaluazioa egingo dugu Zuzendaritza Orokorra eta IKT arduradunen artean.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Aurretik aipatu dugun bezala Proiektu digitala ez dio bakarrik Hezkuntza Proiektuari edo Urteko planari eragin egiten, gure ikuspuntutik Ikastetxeko Proiektu digitalak Plan estrategikoarekin lotura

estua dauka, arrazoi honegatik, gure IPD Plan Estrategikoaren denbormalizazioarekin bat dator, hau da, Plan Estrategikoa 2021-2025 diseinatuta dago eta IPD 2023-2025era pentsatuta dago.

LERRO ESTRATEGIKOAK

- Bizialdi osoko ikaskuntza
- Ingurunea sustatzea
- Berrikuntza
- Kudeaketa eredia
- Komunikazioa eta Aliantzak

Proiektu digital hau, ez dauka lerro estrategiko konkretu batekin erlazioa baizik eta zeharkako modu batean guztiengan eragina dauka



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Lidergoa

Urte askotan zehar aurrerapauso ugari eman ditugu, ala ere inolako estrategia berezirik finkatu gabe, ondorioz Estrategia sendo bat finkatzea beharrezkoa dela uste dugu.

Kolaborazioa eta sareak

Aspalditik Moodle plataforma erabiltzen dugu material didaktiko guztiak bertan txertatzeko, hau da ez daukagu aurretiaz sortuta dagoen materiala erabiltzen. Hau horrela izanda, Koherentzia pedagogiko-teknologikoaren beharra ikusten da, guztiok sortzen ditugun materialak eta ikastaroak "itxura" berdina eduki dezaten. Atal honetan, plataforma berdinak erabiltzen dituzten ikastetxeen arteko kolaborazioak ere oso interesgarriak eta beharrezkoak ikusten ditugu, sortutako produktuak antzeko itxura eduki dezaten.

Azpiegitura eta ekipamendua

Orokorrean atal hau izan da, irakasle, ikasle eta administrazio langileek baxuen baloratu duten atala. Eskolak urte gutxitan bizkor joan da gora eta azpiegitura zein ekipamendu guztiak desfasatua geratu dira. Hortaz, esparru honi garrantzi berezia ematea erabaki dugu, konponbidea eman ahal izateko.

Etengabeko prestakuntza profesionala

Orokorrean, etengabeko prestakuntzaren beharra ikusten da, azken finean teknologia hauek etengabeko hedapen prozesu batean daude eta urte batetik bestera erremientak zaharkituta geratzen dira, ondorioz prestakuntza etengabekoa izan behar da eguneratuta egon ahal izateko, kontutan edukita, hori bai, horrek dakarren denbora beharra.

Laguntzak eta baliabideak

Orokorrean elkarren arteko laguntza nabaria da eta beharren arabera baliabideak zehazten dira momentu oro.

Ikasgelan aplikatzea

Eduki digitalen sorkuntzan formazio beharra daukagu inklusioari erantzuteko eta baita eremu berriak ezagutzeko ere. Irakaslearen artean digitalizazio prozesuan gaude, orain erabilitako baliabideak "digitalizatzeko", irakasleen mailen artean ezberdintasuna nabaria da, batez ere hasi berrien eta jubilatzeke zorian dauden irakasleen artean, nahiz eta guztien jarrera oso positiboa izan.

Ebaluazio jarduketak

Ebaluazio prozesuetan digitalizazioak duen eta izan behar duen lekua aztertu eta erabaki beharra dago.

Irakasleen kompetentzia digitalak

Nahiz eta egun guztia mugikorra eta ordenagailuekin egon, gabezia nahikotxo ikusten dira *arazo teknikoen konponketan*. Hausnarketa arina egin eta gero ondorioztatzen da gauza bat dela kompetentzia digitalak edukitzea eta beste oso ezberdin bat aparatu digitalak erabiltzeko trebezia. Lehenengoan lan sakonago bat egin behar dugula uste dugu.

AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

Estrategia digitalik ez
Diziplina arteko proiektu digitalik ez
On line eta Offline herramienten arteko inkompatibilitadeak (Drive-Office)
Azpiegitura egokirik ez
Formazio falta

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

Finantziario falta
Beharrezkoa den denbora ez edukitzea
Baliabide falta ikasleen aldetik

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

Kalitatezko baliabideak
Irakasleen jarrera eta inplikazio positiboa
Hezkuntza komunitatearen arteko elkarlana

Aukerak (kanpo-faktoreak)

Ikastetxeko estrategia digitalaren diseinua egitea
Ikastetxeko komunikazio plana berdiseinatzea
Irakaskuntza modalitate berriak

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

Esparruka guztizko bateratasuna ez badago ere, ikastetxeak profesionalen eta ikasleen aldez aurreko jarrera positiboa erakusten du egin beharreko aldaketa funtsezkoen aurrean. Kanpoko faktoreen artean aukera bezala har daiteke testuinguru honetan gobernuetatik etorriko diren funtsak eta noderatuko diren formazioak, mentoretzak, akreditazioak, e. a.

Beraz:

- Ildo hau indartzeko analisisian ondoen baloratu diren esparruetan orain arte egin diren ekintzak mantendu egin behar dira.
- Talde-ikuspegi positiboa indartzeko ongien baloratuta dauden esparru horietako ekintzak ikas-komunitatearen barruan zein inguruko eskualdean, hezkuntza sarean, ikastetxearen emaitz egokiek presentzia izan dezaten kanpoko ekintzen ildoak landu behar da (komunikabideetako albisteak, jardunaldietan eta profesionalen sistemako saioetan parte hartzea, e. a.).

Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

Oso ongi identifikatu dituzte barneko faktoreen ahuleziak: ebaluazioa, baliabideen antolaketa, erreferentziazko proiektuaren beharra, materialen kurazioa, praktika egokien trukaketa, azpiegitura eta honen mantenua, baiabide ekonomikoen eta giza-baliabideen falta, egituraren beharrak, arloen artekotasuna landu beharra, ikasleentzako ikasteko inguru virtual egokien falta... Kanpoko faktoreen artean aurrean azaldu ditugun aukerak egoera honetan posible direla pentsa daiteke (funtsak, baliabideak, e. a.).

Beraz:

- Proiektu digitala martxan jarri behar da.
- Honekin lotutako prestakuntza-plana txertatu behar da ikastetxearen proiektu orokorretan eta azaldutako gabeziak landu (ebaluazioa, proiektuak, arloartekotasuna...).
- Funtsak azpiegitura teknikoa, mantenua eta ikasteko Inguru Birtuala osatzeko erabili beharko lirateke.

Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

Indarguneak goian azaldutakoak izan daitezke (profesionalen eta ikasleen aurretiazko jarrera ona). Kanpo-faktoreen mehatxu zehatzen aipamenik ez dago, baina errealista izan daiteke esatea, batetik, diru-iturri finkorik eta langile-hornidura egokia ez izatea eta, bestetik, ikastetxearen profil sozioekonomikoaren arabera, egon daitekeela arrakala digitala areagotzeko arriskua (azken urteotan jasan dugun egoeraren aurrean, gehiago). Hortik gora zail egin daiteke asmakizunik egin barik beste mehatxu objektiborik ote den aurreikustea.

Beraz:

- Ikasleen eta profesionalen lankidetzak eska daiteke ikastetxearen diru-horniduraren azterketa egin eta gastuen lehentasun berriak proposatzeko.
- Indartu egin daiteke gurasoen eta familien prestakuntza digitalizazioaren erabilera sustatuz eta kompetentzia digitalaren garapen ezagatik handitu daitekeen arrakala txikitzeko.
- Ikastetxeak beren beregi aztertu beharko du familiek beraien testuinguruan edo herrierakundeetan tresneria eta azpiegitura egokia lortzeko laguntzak eta zerbitzuak

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

Ahuleziak goian azaldutakoak dira (testuan ongi azalduta datoz). Mehatxuak ez datoz azalduta baina, hemen goian esan denez, batzuk inferitu egin daitezke (finantzaizio eta personal dedikatuaren falta, arrakala digitala...).

Beraz:

- Ikastetxean ondo baloratu diren prozesuekin lotutako ekintzak eta praktika onak (lineako baliabideen erabilera, e. a.) garatzeko aukerarik ez badago, behintzat mantendu egin behar dira.
- Baliabide ekonomikorik lortzerik ez badago, gutxienez orain arteko hornidurak mantendu egin behar dira, murrizketaril egin barik.
- Garapen handirik egin ezin bada ere, gurasoekin gutxieneko formazio-ildo bat zaintzen ahalegindu behar da ikastetxea ahal den neurrian etor daitezken desberdintasun-egoerei hobeto aurre egiteko.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua

Eskolaren profil digitala egungo beharretara egokitzea

Deskriptorea	Epea	
LG 1.1 Ikaskuntza digitalerako teknologien ahalmena argi markatzen da	2023/09/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.1 A1 Estrategia digitala dokumentu batean idatzi da.	Bai/Ez	BAI
LG 1.1 A2 Proiektu digitala idatzi da.	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Dokumentoen eraketa		Eraldi taldea+zuzendaritza	2024/07/19	Prozesuan (%60-79)

Helburua

Eskolako estrategia digitala eskolako aktibo guztiak onartu

Deskriptorea	Epea	
LG 1.2 Ikaskuntza digitalerako teknologien alde onak komunikatzen dira	2023/10/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.2 A1 Proiektu digitala hezkuntza komunitate osoak onartu du (irakasle-taldeak, eskola-kontseilua	Bai/Ez	2023/10/30

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Klaustroan aurkeztea		Eraldi taldea	2023/09/30	Detektatua
Artezkari-tza kontseiluan aurkeztea		Zuzendaria	2023/09/30	Detektatua

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua		
Eskolako aktiboak ahalbidetu		
Deskriptorea	Epea	
II 2.1 Pertsonalak aldaketarekin bat eginda jarduten du	2025/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 2.1 A3 Irakasleentzako gida bat argitaratu da, IIB hobeto ezagutzen lagunduko duten adibideekin.	Bai/Ez	BAI
	Bai/Ez	

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Dokumentoaren eraketa		Eraldi taldea	2024/07/19	Detektatua
Gidaren eraketa		Eraldi taldea	2025/07/19	Detektatua

Helburua		
Irakaslegoa eskolako estrategia digitalarekin bat dator		
Deskriptorea	Epea	
II 1.1 Pertsonala eta ikasleak gai dira arlo digitalean	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.1 A2 Ikastetxeak hautatu / egokitu / garatu du programazioen jarraipena eta ikasleen ebaluazioa eg	Bai/Ez	24-06-30
II 1.1 A3 Badago egutegi bat, ikastetxean koaderno digitala ezartzeko.	Bai/Ez	24-06-30
II 1.1 A4 Egutegian formakuntza saioak ere finkatuta daude.	Bai/Ez	24-06-30

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Koaderno digitalaren eraketa	Google Drive	Koordinazio Pedagogikoa	2023/07/28	Prozesuan (%80-99)
Eskolako barneko egutegia sortu	Google Calendar	Ikasketa Burua	2023/06/01	Egina

GP Garapen profesionala

Helburua		
Irakaslegoaren profil digitala bermatzea		
Deskriptorea	Epea	
GP 1.1 Agerikoa da EGPren aldeko konpromisoa	2025/07/18	
Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.1 A1 ikastetxean sartu berri diren irakasleentzako tresna eta aplikazio normalizatuen urteko oinar	Bai/Ez	BAI
GP 1.1 A2 Irakasleen Harrera Planaren barruan, estrategia digitalarekin, baliabide digitalen erabilerarela	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Planaren diseinua		Eraldi taldea	2026/07/18	Detektatua

Helburua		
Irakaslegoaren hobekuntza prozesu eguneratua		
Deskriptorea	Epea	
GP 1.3 EGPa lerrokaturik dago banakako eta antolaketako premiekin	2024/07/05	
Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.3 A1 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzen ditu irakasleentzat, hainbat interes ped:	Bai/Ez	BAI
GP 1.3 A3 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzea, baliabide digitalak sortzeko eta irakaski	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Seminarioak / Barne formazioak		IKT Pedagogoa	2024/06/28	Detektatua

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua		
360º ebaluazio sistema lortu		
Deskriptorea	Epea	
EJ 1.2 Ebaluazio batutzailea dibertsifikatzen da	2025/06/26	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.2 A2 Programazioetan, ebaluazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuetan erabiliko diren tek	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Dauden teknologia ezberdinen azterketa		Eraldi taldea	2026/06/19	Detektatua

Helburua		
Ebaluazio sistema estandarizatua lortzea		
Deskriptorea	Epea	
EJ 3.1 Ikaskuntzaren analisia estrategikotzat hartzen da	2025/07/03	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 3.1 A2 Hezkuntza-maila guztietako ikasleen produkzioetarako errubrikak komunak adostu ditu	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Errubrika sistema finkatzea / adostea		Klaustroa	2026/06/19	Hasita (%1-19)

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

Moodle plataforma (SAIOKA) guztion eguneroko erreminta bihurtu

Deskriptorea	Epea	
EC 1.1 Irakasleek eta ikasleek sortzen dute edukia	2025/07/03	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 1.1 A1 Curriculum-arloen/ikasgaien % ... ean, gutxienez, ikasleek eduki eta baliabide digitalak sortze	Ehunekotan	90

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Plataforma erabiltzeko seminarioak eman		IKT Pedagogoak	Beharren arabera	Egina

Helburua

BatxiLab proiektuarekin aurrera jarraitu

Deskriptorea	Epea	
EC 2.1 Irakasgaietan oinarritutako ikaskuntza beste era batera antolatzen da eredu integratuagoak sortzeko	2025/06/26	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 2.1 A4 Diziplinarteko proiektuak urteko programazioetan eta unitate didaktikoetan jasota daude.	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Erronka berrien diseinua		Batxi arduraduna	2026/06/05	Detektatua

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua

Lan taldea sustatu

Deskriptorea	Epea	
EN 1.2 Ezagutza trukatzeko ahaleginak errekonozitzen dira	urtero	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 1.2 A1 Ikastetxeak eremu digitalean esperientziak trukatzeko jardunaldi batzuk planifikatu ditu, ingl	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Buenas practicas jardunaldiak antolatzea		Koordinatzaile pedagogikoa eta klaustroa	urtero	Detektatua

Helburua

Komunikazio gardena eta argia edukitzea

Deskriptorea	Epea	
EN 2.1 Komunikazio-estrategia esplizitua dago ezarrita		
Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 2.1 A1 Ikastetxeak ikastetxeko komunikazio-plan bat garatu du, informazio- eta komunikazio-proze:	Bai/Ez	BAI
EN 2.1 A2 Hezkuntza-eduki digitalak dituen ikastetxearen web-orria eguneratzeko protokoloa definitu	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Komunikazio plana sortzea		Komunikazio taldea	2025/07/04	Hasita (%1-19)

Helburua

Komunikazio gardena eta argia edukitzea

Deskriptorea	Epea	
EN 2.2 Agerikoa da online presentzia dinamikoa	urtero	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 2.2 A1 Ikastetxeak ikastetxearen komunikazio-plana, eguneratze-bitartekoak eta -prozedurak zehaz	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
----------	-------------	-------------	------	--------

--	--	--	--	--

Helburua

Lan taldea sustatu

Deskriptorea	Epea
EN 1.5 Barne-lankidetzak eta ezagutzak trukatzeko espero da	urtero

Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 1.5 A1 Ikastetxean teknologia digitalen erabilerari buruzko informazioa eta hausnarketa trukatzeko	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Buenas practicas jardunaldiak antolatzea		Koordinatzaile pedagogikoa eta klustroa	urtero	Detektatua

AZ Azpiegiturak

Helburua

Azpiegiturak egungo egoerari erantzuna emateko egokiak izatea

Deskriptorea	Epea	
AZ 1.1 Ikaskuntza-ingurune fisikoek optimizatu egiten dituzte aro digitaleko ikaskuntzaren aukerak	2023/09/04	
Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 1.1 A1 Ikastetxeak dokumentu bat edo atal bat du ikastetxeko espazioak, ekipamendua eta baliabid	Bai/Ez	BAI
AZ 1.1 A3 Ikastetxearen proiektu digitala garatzeko ardura duen batzordeak, hiru hilean behin, akordio	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Azpiegitura berri		Activos y Recursos	2023/09/04	Prozesuan (%60-79)

Helburua

Azpiegiturak egungo egoerari erantzuna emateko egokiak izatea

Deskriptorea	Epea	
AZ 1.2 Ikaskuntza-ingurune birtualak optimizatzen dira.	2025/07/04	
Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 1.2 A1 Ikastetxeak irakasleen konpromiso-akordio bat onartu du, ikastetxeko gordailuan hezkuntza-	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Plataforma erabiltzeko seminarioak eman		IKT Pedagogoa	2025/07/04	Hasita (%1-19)

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Eskolaren profil digitala egungo beharretara egokitzea	2023-URRIA	Dokumentoen ebaluazioa	ZUZENDARITZA TALDEA	Prozesuan (%60-79)	
LG	Eskolako estrategia digitala eskolako aktibo guztiak onartu	2023-URRIA	Dokumentoen ebaluazioa	ZUZENDARITZA TALDEA	Prozesuan (%60-79)	
II	Eskolako aktiboak ahalbidetu	2025-EKAINA	Dokumentoen ebaluazioa	KOMISIO PEDAGOGIKOA	Detektatua	
II	Irakaslegoa eskolako estrategia digitalarekin bat dator	2024-UZTAILA	Koaderno digitalaren kontrola	IKASKETA BURUA	Prozesuan (%40-59)	
GP	Irakaslegoaren profil digitala bermatzea	2025-UZTAILA	Planaren ebaluazioa	IKASKETA BURUA	Hasita (%1-19)	
GP	Irakaslegoaren hobekuntza prozesu eguneratua	2025-UZTAILA	Formazioen balorazioa	IKASKETA BURUA	Prozesuan (%20-39)	
EJ	360º ebaluazio sistema lortu	2025-EKAINA	Ebaluazio sistemaren ebaluazioa	KOMISIO PEDAGOGIKOA	Detektatua	
EJ	Ebaluazio sistema estandarizatua lortzea	2025-EKAINA	Ebaluazio sistemaren ebaluazioa	KOMISIO PEDAGOGIKOA	Detektatua	
EC	Moodle plataforma (SAIOKA) guztion eguneroko erreminta bihurtu	2024-UZTAILA	Ikastaro ezberdinen errepasoa egin	KOMISIO PEDAGOGIKOA	Prozesuan (%60-79)	
EC	Batxilab proiektuarekin aurrera jarraitu	2025-EKAINA	Proiektuen balorazioa/ ebaluazioa	BATXI ARDURADUNA	Prozesuan (%60-79)	
EN	Lan taldea sustatu	URTERO	Ikastaroen balorazioa eginez	KOMISIO PEDAGOGIKOA	Egina	
EN	Komunikazio gardena eta argia edukitzea	2025-UZTAILA	Komunikazio planaren ebaluazioa	ZUZENDARITZA TALDEA	Prozesuan (%40-59)	
EN	Komunikazio gardena eta argia edukitzea	2025-UZTAILA	Komunikazio planaren ebaluazioa	ZUZENDARITZA TALDEA	Prozesuan (%40-59)	
EN	Lan taldea sustatu	URTERO	Ikastaroen balorazioa eginez	KOMISIO PEDAGOGIKOA	Egina	
AZ	Azpiegiturak egungo egoerari erantzuna emateko egokiak izatea	2023-URRIA	Sarearen inguruko galdetegi orokorra egin	ACTIVOS Y RECURSOS	Prozesuan (%60-79)	
AZ	Azpiegiturak egungo egoerari erantzuna emateko egokiak izatea	2023-URRIA	Sarearen inguruko galdetegi orokorra egin	ACTIVOS Y RECURSOS	Prozesuan (%60-79)	

